

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Guresoro, bertako produktu ekologikoak eta Km0-koak saltzeaz arduratzen den enpresa da. Helburua, bertako produktu ekologiak sustatzea izateaz gain, gaur egun dagoen obesitate maila jaistea eta bertako nekazariei laguntzak ematea ere badu helburutzat. Salmentak vending makina bidez egingo ditugu, herri desberdinetan kokatuz. Hainbat motatako elikagaiak aurkitu daitezke makinetan, esaterako; barazkiak, esnekiak, fruituak...

Ezaugarri ezberdinak dituzten bezeroengana iritsiko gara. Baina nahi izanez gero, aukera izango dute bezero leial gisa Guresoro-ko txartela eskuratzeko. Horrela, erosketa kopuruaren arabera deskontu batzuk lortuko lituzkete.